



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko urriaren 9a

86. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriei buruzkoa, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baime-nari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkotako zigorrak betetzeko plazen eskaintza sustatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nafarroako txirotasun-indizeei eta oinarritzko errentari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gauzez. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartze-ko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.**

**AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut. Proiektu hori 2008ko uztailearen 4ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**OSOKO ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA  
-NAFARROAKO EZKER BATUA**

**FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, zeinaren bitartez eskatzen baita foru lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

Zioak: Azken batean, Nafarroako toki entitateek eskumen kopuru oso handia dute, eta entitateok arduratzen dira, gero eta gehiago azken urteotan, herritarrei funtsezko zerbitzuak emateaz.

Hala ere, exigentzia horrekin batera ez da ezarri finantzaketa-marko egonkor eta nahikorik. Aitzitik, toki entitateen finantzaketaren oinarria izan da horietako bakoitzak hirigintza kudeatzetik ezohiko baliabideak ateratzeko izan duen gaitasuna; toki-finantzaketa, beraz, gaitasun horren baitan egon da.

Udal batzuk, horrela, urbanizatuak dituzte beren lur guztiak, eta ezin dute hirigintza-garapen gehiagorik izan, halako moduz non, finantza-ahalmenari dagokionez, gabezia larriak baitituzte.

Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuak, finantzaketari begira, ez du nongo marko orokor, egonkor eta nahikorik jarri, eta toki entitateen finantzaketa egon da urtero Nafarroako aurrekontu orokorren negoziaketaren eta onepenen baitan.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeari buruzko foru legeek ez dute marko egonkor eta nahiko hori ekarri, eta egin duten gauza bakarra izan da, aldiari aldiari, funtsa eta funtsaren banaketa eguneratzea.

Horrenbestez, jakin beharra dago, eta eztaba da hori egiteko dago oraindik, ea toki entitateek baduten adin-nagusitasunik finantza-gaietan, eta bada garaia foru lege batek ezar dezan, segurtasun juridikoz eta indarraldi iraunkorrez, nola hartu behar duten toki entitateek dagokien partea Nafarroako tributuetatik, zer kopuru har ditzaketen eta nola eguneratu behar diren kopuru horiek.

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako foru legeak ez du hori hartzen helburu eta, beraz, eskatzen dugu proiektua itzul dakion.

**2. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, Foru Lege proiektua Gobernuari itzul dakion, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu-ekitaldietarako.

Zioak: Beste behin ere, aurkeztu diguten proiektuak ez die erantzuten gure toki entitateek bizi

dituzten arazoei. Plan kontinuista da, eta piztutako itxaropenak zapuztu ditu, uste baikenuen oraingotan, azkenean, Gobernuak ausartuko zela emandako hitza betetzera.

Lege proiektu kontinuista dugu hau, hala formari nola mamiari dagokionez, eta ez du bermatzen ezta ahalbidetzen ere toki entitateek benetako autonomia izan dezaten.

Finantzaketa-eredu berria behar da, finantzahikotasuna bermatuko duena; tributuetatik hartzen den parteak aski izan beharko du eta banaketak ere, lurraldeen arteko oreka lortze aldera, bidezkoa beharko du.

1. Abiapuntu hartu den kopurua ez da nahikoa; iazkoaren jarraipena baino ez da. Kopuru horrek 2007ko zergekin bildutakoaren % 6 baino gutxiago egiten zuen; Europan, aldiz, kopuru hori, batez beste, % 15ekoa da gutxi gorabehera, eta, zenbateko horrek, ondo bidean, bidezkoa izateko, % 25era hurbildu beharko luke, baldin eta nahi badugu udal eta kontzeju guztiak behar beste baliabide izan ditzaten haien eginkizunei aurre egiteko.

Izenak hala badio ere, sistema honen oinarria ez da parte-hartzea; oinarria da laguntza paternalista batzuen esleipena, eta hala ikusten da proiektuaren testuan bertan, hitzez hitz honela esaten baita: "ekitaldi bakoitzari esleitutako partaidetzaren zenbatekoa hirutan banatzen da (...): batetik, transferentzia arruntak; bestetik, kapital transferentziak; eta, azkenik, bestelako laguntzak". Beste laguntza batzuek ari bazaigu, da aurrekoak ere laguntza direlako. Toki entitateek ez dute laguntzarik behar; behar dutena da legea betetzea, ez gehiago eta ez gutxiago, legeak esaten baitu toki ogasunek nahiko baliabide izan beharko dituztela beren eginkizunak betetzeko.

Ez da jakina, edo ez da jakin nahi, nork zer egiten duen, eta kostua zein den. Ez da eztabaidatu, beste behin ere, zerbitzuak herritarrei benetan emateari buruz eta zerbitzu eta eginkizun horiek emateari dagokionez bakoitzak duen erantzukizunari buruz, horretarako irizpideok kontuan hartuta: eraginkortasuna, gardentasuna eta subsidiaritatea. 2007ko azaroaren 8an, mozio bat onetsi zen Nafarroako Parlamentuan, zeinaren bitartez Toki Administrazio Departamentua premiaturik ez zela azterlan bat egin zezan, horrela ikertzeko zer toki entitateek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sor-

tzen duten, parte hartzeko funtsa banatzeko formulatan kontuan hartua izan dadin, eta, kasu bada, egungo formulak alda daitezten.

Banaketarako formula aldatu egin da, auskalo zer faktoreren arabera. Azterlanean jaso zitezela eskatutako guztiak argitu gabe dauzkagu –esan zenez, egiten ere ari omen ziren azterlana–, inork ez baitigu ezer jakinarazi. Mozio horren bigarren puntuari eskatzen zen, hain zuzen, azterlana Parlamentuan aurkeztu eta eztabaidatu zedila, eta horrelakorik, jakina, ez da gertatu.

2. Ez da onargarria justizia eta ekitatea aipatzea, jakin badakigu eta zenbait toki entitatek biztanleko duten gastua milaka eta milaka eurokoa dela, eta beste batzuk, aldiz, ez direla milara ere iristen; hainbesteko aldeak ezin du bidezkoa izan. Nafar guztiak, bizi diren lekuan bizi direla, eskubidea dute antzeko gastuak izateko eta kalitateko zerbitzuak jasotzeko. Milagarrenez eskatu beharrean gaude argitu dadila zein diren toki entitateek aurre egin beharreko benetako eskumenak, berezkoak edo eskuordetuak, eta, behin horiek zein diren jakinda, entitate horiei ahalmen ekonomiko nahikoa eman dakiela zerbitzuok kalitatez emateko, baina horrek ez ditzala finantzen aldetik itota utzi gure zenbait udal eta/edo kontzeju, gaur gertatzen den legez.

Ez da egia, proiektu honek hala badio ere, bermatuta gelditzen dela gehiago jasoko duela gastu behar handienak dituenak eta/edo baliabide berekiak lortzeko gaitasun txikiagoa duenak. Orain arte ez da horrela izan. Eta proiektu honek lortzen duen bakarra da toki entitateen arteko aldeek bere horretan irautea; izan ere, bermatzen duenean denek jasoko dutela, gutxienez ere, aurreko ekitaldian esleitutako diru kopurua, kopuru horiek handituko diren apurra baizik ez zaigu gelditzen hain desoreka handiak berdintzen saiatzeko. Formularen, ez da kontuan hartzen ezen udal guztiak ez dituztela aukera berak baliabide berekiak lortzeko, eta, horri dagokionez, berdina da biztanle kopurua zein den, bai eta banaketarako formularen agertzen diren aldagarri horiek zenbatekoak diren ere.

Gure ustez, beharrezkoa da azterlan serio bat, denok bat etorriko garena, toki entitateak finantzatzeko modu berri bati buruz. Berraztertu beharra dago zer diru kopuru banatu behar den eta nola, baldin eta bermatu nahi badugu toki entitateen benetako finantza-nahikotasuna, dituzten eskumenak erabiltzeko balioko dena. Eta hori, proiektu honekin, –argi dago– ez da lortzen.

**ARTIKULUEI AURKEZTURIKO  
ZUZENKETAK**

**1. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“1. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

2009ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren zuzkidura 323.207.535 eurokoa izanen da hasiera batean, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da.”

Zioak: Tributu bidezko dirusarreretan partaidetza handitzea, uste baitugu oraingoa ez dela inolaz ere nahikoa.

**2. ZUZENKETA**

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“240.782.455 eurokoa izanen da hasiera batean” dioen tokian esan behar du “290.782.455 eurokoa izanen da hasiera batean”.

Zioak: Proiektuan jasotzen den kopurua ez da nahikoa, bereziki toki erakundeek beren hirigintza-kudeaketatik lortutako dirusarrerak murrizten ari diren une batean.

Beharrezkoa da partaidetza funtsa handitzea (50 milioi eurotan), toki erakundeek finantzatu ahal izan ditzaten herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak.

**3. ZUZENKETA**

**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua, funtsaren zuzkidura, aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen tokian: “2009ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren zuzkidura 240.782.455 eurokoa izanen da hasiera batean, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da. Gero, zenbateko hori handitu egingen da, transferentzia arruntak eta bes-

telako laguntzak deritzen kontzeptuetan. Gehikuntza hori honakoa izanen da: Kontsumorako Prezioen Indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izan duen igoera portzentualaren parekoa, ekainetik ekainera neurtua, gehi ehuneko bi”

Honakoa behar du: “2009ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten partaidetza funtsaren zuzkidura 244.800.127 eurokoa izanen da, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da.”

Zioak: Toki erakundeek finantzaketa hobetu nahi dugu, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta funts horretatik jasotzen dituzten transferentzien artean doikuntza lortze aldera.

**4. ZUZENKETA**

**NAFARROA BAI**

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“2. artikulua. Funtsaren banaketa.

Toki ogasunen Nafarroako tributuetako partaidetzen funtsa, 2009ko ekitaldirako, honela banatuko da:

1. Transferentzia arruntak: 191.405.651 euro

2. Kapital transferentziak: 63.801.884 euro

3. Bestelako laguntzak:

A) Iruñeko Udalari, “Hiriburutza agiria” delakoa-gatik: 22.000.000 euro

B) Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.600.000 euro

C) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 400.000 euro

D) Tuteran, Lizarra, Tafalla, Altsasu, Elizondo eta Zangozako Udalei: 10.000.000 euro

E) Kontzejuentzako banaketa : 4.000.000 euro

F) Osasun eta hezkuntza arloko funtzioengatiko konpentsazioa: 20.000.000 euro.”

Zioak: Hasiera bateko zenbatekoa ez da nahikoa.

Uste dugu “Bestelako laguntzak” atalean beharrezkoa dela kontuan hartzea udalerrian bizi ez diren herritarren beharrak asetzeko xedez aurrekontuko zati handi bat gastatzen duten herriak, eta kontzejuei egin beharreko banaketa beste era batera aztertu beharko litzatekeela. Osasun eta hezkuntza arloko funtzioengatiko konpentsazioa

proposatzen da, arreta berezia jarriz 0tik 3 urtera bitarteko zikloari, musika eskolei, ikastetxeen mantentze lanei eta emakumeei laguntzeko zentron funtzionamenduari.

## 5. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AUZKERTUA

2. artikuluko 2. lerroaldea aldatzeko zuzenketa.

“157.727.904 euro” dioen tokian esan behar du “197.727.904 euro”.

Zioak: Proiektuan jasotzen den kopurua ez da nahikoa, bereziki toki erakundeek beren hirigintza-kudeaketatik lortutako dirusarrerak murrizten ari diren une batean.

Beharrezkoa da partaidetza funtsa handitzea (40 milioi euro gehiago), toki erakundeek finantzatu ahal izan ditzaten herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak.

## 6. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua, funtsaren banaketa, aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen tokian: “1. Transferentzia arruntak: 157.727.904”

Honakoa behar du: “1. Transferentzia arruntak: 161.045.317”

Zioak: Toki erakundeen finantzaketa hobetu nahi dugu, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta funts horretatik jasotzen dituzten transferentzien artean doikuntza lortze aldera.

## 7. ZUZENKETA

### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AUZKERTUA

2. artikularen 3. lerroaldea aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen tokian: “56.197.537 euro”, honakoa behar du “66.197.537 euro”.

Zioak: Proiektuan jasotzen den kopurua ez da nahikoa, bereziki toki erakundeek beren hirigintza-kudeaketatik lortutako dirusarrerak murrizten ari diren une batean.

Beharrezkoa da partaidetza funtsa handitzea (10 milioi euro gehiago), toki erakundeek finantzatu ahal izan ditzaten herritarrei eskaintzen dizkieten zerbitzuak.

## 8. ZUZENKETA

### SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2.3. artikulua, bestelako laguntzak, aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen tokian:

“3. Bestelako laguntzak: A) Iruñeko Udalari “Hiriburutza agiria” delakoagatik: 21.567.407 euro. B) Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 4.929.508 euro. C) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 360.099 euro”

Honakoa behar du:

“3. Bestelako laguntzak: A) Iruñeko Udalari “Hiriburutza agiria” delakoagatik: 22.021.024 euro. B) Nafarroako udalei, korporazioko kideei ordainketak egiteko: 5.168.577 euro. C) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 367.673 euro”

Zioak: Toki erakundeen finantzaketa hobetu nahi dugu, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta funts horretatik jasotzen dituzten transferentzien artean doikuntza lortze aldera.

## 9. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, Funtsak 2010, 2011 eta 2012rako esleitutako diru kopurua zehazteko, aurreko artikuluan 2012. urterako kontzeptu horiengatik ezarritakoa hartuko da oinarritzat, eta gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izaten duen igoera portzentuala, ekainetik ekainera hartuta, urte horietako bakoitzerako, eta beste sei puntu gehiago erantsiko zaizkio.

Zioak: Hasierako zenbateko eskasak eskatzen du pixkanakako hazkundera handiagoa izatea proiektuan adierazitakoa baino.

**10. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AUZKERTUA

3. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Lege proiektuko testu horren ordean ondokoa jartzea proposatzen dugu:

“2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, Funtsak 2010, 2011 eta 2012rako esleituta daukan diru kopurua izanen da aurreko ekitaldiko kopuruari ondoko magnitudeak gehituta lortzen den emaitzarik handiena:

– Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizearen igoera portzentuala, ekainetik ekainera hartuta, beste lau puntu gehiago erantsita.

– Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik betetako gastuaren gehikuntza.

– Nafarroako Foru Ogasunak eginiko zerga bidezko dirusarreraren bilketaren gehikuntza”

Zioak: Atzeraldia gainditzan denean, pentsatzea da azken bi magnitudeak handiagoak izatea foru lege proiektuko gaurkotze-indizea baino, eta uste dugu beharrezkoa eta bidezkoa dela toki ogasunak hazkunde ekonomikoko egokieraren onuradun izatea.

**11. ZUZENKETA****NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“3. Funtsean kapital transferentzietarako bereizitako diru kopurua 69.554.054 euro izanen da 2010. urtean, 75.803.018 euro 2011. urtean eta 82.625.290 euro 2012. urtean, eta diru hori 13. artikuluan xedatutakoaren arabera banatuko da.

Zioak: Azpiegituren planera bideratutako diru-kopurua handitzea, bereziki libreki erabakitako leerroari dagokionez.

**12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AUZKERTUA

3. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

Lege proiektuko testu horren ordean ondokoa jartzea proposatzen dugu:

“3. Funtsak kapital transferentzietarako 2010., 2011. eta 2012. urteetarako bereizitako diru kopurua izanen da aurreko ekitaldiko kopuruari ondoko magnitudeak gehituta lortzen den emaitzarik handiena:

– Bi puntu eta erdiko igoera portzentuala.

– Nafarroako Aurrekontu Orokorretatik betetako gastuaren gehikuntza.

– Nafarroako Foru Ogasunak eginiko zerga bidezko dirusarreraren bilketaren gehikuntza”

Zioak: Atzeraldia gainditzan denean, pentsatzea da azken bi magnitudeak handiagoak izatea foru lege proiektuko gaurkotze-indizea baino, eta uste dugu beharrezkoa eta bidezkoa dela toki ogasunak hazkunde ekonomikoko egokieraren onuradun izatea.

**13. ZUZENKETA****NAFARROA BAI**  
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua, gainerako udalerrientzako banaketarako formulari buruzkoa, aldatzeko zuzenketa.

“Gainerako udalerrientzako banaketarako formula prozedura honi jarraikiz lortuko da:

a) Lehen fase batean, gastu publikoaren indizea lortuko da biztanleko, zeinak herritarrei derri gorrez eskaintzen zaizkien edo eskaini beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak jasoko dituen. Horrek ahal bezain orekatua izan beharko du udal guztientzat, herritar guztientzat kalitatezko oinarritzako zerbitzuak bermatze aldera.

b) Bigarren fase batean, presio fiskalerako baremo bat zehaztuko da udalek zerga-bilketarako ahalmena duten alorretako bakoitzean, neurgarria izan dadin bakoitzak banaketa formulatu egiten duen zerga ahalegina.

c) Biztanleko zerga-bilketa efektiboa egiteko ahalmena zenbatuko da oinarritzat hartuz partidetza funtsaren beharra eta menpekotasuna neuritze aldera toki entitate bakoitzak egiten duen presio fiskala –b) atalean esleitzen zaiena–.

d) Banaketa ondoko parametroak aplikatuz egiten da: a) atalean zehazturiko biztanleko gastua esleitzea; c) atalaren arabera izan ditzaketen balizko dirusarrerak zehaztea. Banaketa izanen da biztanleko gastuaren eta udalak zerga-bilketarako duen ahalmenaren arteko aldea.

Biztanleko gasturako ahalmen handiena duen udalaren eta txikiena duenaren arteko aldea ezin izanen da 1,5 baino handiagoa izan.

Zioak: Proiektu honetan proposaturiko banaketa formula da orain arte erabilitakoen jarraipena, aldaketa txikiren batekin. Horren bidez, ez dira benetan lortzen biztanleko gastu premiak, eta are gutxiago zerga-bilketarako ahalmen efektiboa; beraz, ikusten dugu diru nahikoa duten entitate batzuek gehiago jasotzen duten bitartean, egoera zailean dauden beste batzuek ez dutela aintzat hartua ikusten beren finantza-autonomia. Ez da bidezkoa ekitateari buruz hitz egitea, toki entitate batzuen eta besteen artean biztanleko gastuaren artean milaka euroko aldea dagoenean.

#### 14. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Berme klausula horren eraginez, oreka berriro lortzeko aukerak etorriko dira bakarrik aurreko urteko kontusaila handitzearen bidez.

#### 15. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua, kontzejuentzako hasierako esleipena, aldatzeko zuzenketa.

“Transferentzia arrunten kontusailetik kontzejuentzako esleipena egitean, kontzejuei, dituzten ebaluazio elementu guztietan, udalentsat erabiltzen diren baremazio irizpide berak aplikatuko zaizkie”

Zioak: Kontzejuentzako banaketa sistema berria ezartzea.

#### 16. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa.

“Kontzejuak dituzten udalei aplikatu beharreko banaketa formula, transferentzien eta bestelakoen funtsa banatzekoa, udal soilei aplikatuko zaien bera izanen da. Egokitzen diren transferentzia guztiak udalarentzat geldituko dira.”

Zioak: Behin kontzejuak finantzatzeko zuzeneko formula bat erabakita, udal konposatuak gainarako tratua bera izan behar dute.

#### 17. ZUZENKETA

##### NAFARROA BAI

##### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikuluko b) idatz-zatia aldatzeko zuzenketa.

“b) Udalek kontzeptu horregatik urtean jasotzen ahal duten gehieneko ekarpena, 2009. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

– Kontzeju irekiko araubideko udalak: 4.800 euro

– 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 11.500 euro

– 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 17.000 euro

– 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 20.300 euro

– 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 32.500 euro

– 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 56.300 euro

– 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 86.100 euro

– 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 123.400 euro

– 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 206.800 euro.”

Zioak: Laguntzak handitzea; horrela, toki entitateetako ardurak hartzen dituzten pertsonen diru ordaina ez dadin gehiegizko zama gehigarria izan udalarentzat.

#### 18. ZUZENKETA

##### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

##### PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

15. artikulua, Nafarroako udalentsako konpensazioa, hautetsiei beren karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera, aldatzeko zuzenketa.

Ondokoa dioen tokian: “b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehienezko ekarpena, 2009. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

– Kontzeju irekiko araubideko udalak: 3.995 euro.

– 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 10.292 euro.

– 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 15.135 euro.

– 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 18.162 euro.

– 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 29.059 euro.

– 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 50.247 euro.

– 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 76.885 euro.

– 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 110.181 euro.

– 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 184.644 euro.”

Honakoa behar du: “b) Kontzeptu horregatik, udalek urtean jasotzen ahal duten gehienezko ekarpena, 2009. urterako, udala osatzen duten hautetsien kopuruaren arabera, hauteskundeetako legeria orokorrari jarraikiz, honako hau izanen da:

– Kontzeju irekiko araubideko udalak: 4.080

– 5 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 10.508

– 7 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 15.453

– 9 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 18.544

– 11 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 29.670

– 13 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 51.304

– 17 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 78.502

– 21 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 112.499

– 27 zinegotzi hautetsi dituzten udalerrriak: 188.528”

Zioak: Urteko gehieneko ekarpenak egunera-tzea 2009. urterako, oinarritzat hartuz 2008rako

ezarritako zenbatekoa, Nafarroako Foru Komunitateko kontsumorako prezioen indizean, 2007ko ekainetik 2008ko ekainera aintzat hartuta, gehi bi puntu; alegia, ehuneko 4,8 gehi bi puntu.

## 19. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hamazazpigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“17. artikulua. Laguntzak Tuter, Tafalla, Lizarra, Altsasu, Elizondo eta Zangozako Udalei.

Laguntza hori ematen zaie eskaintzen dituzten zerbitzu ugariengatik; zerbitzu horiek eskatzen dituzte hain zuzen ere, bertako herritarrek nahiz bertako erroldetan erregistratuta egon gabe noizean behingo erabiltzaile edo erabiltzaile iraunkor gisa joaten direnek.

Tuter, Tafalla, Lizarra, Altsasu, Elizondo eta Zangozako Udalei helburua zehaztua duen laguntza bat ematen zaie; hona zenbatekoa: 16.000.000 euro. Udal horien arteko banaketa eginen da beren eragin esparruak eskaintzen dituen zerbitzuen dotazioak duen zamaren arabera.

2009an emanen zaie ezarritako zenbatekoa, eta 2010, 2011 eta 2012ko ekitaldietarako aurreko urtean jasotako zenbatekoa esleituko zaie, eta horri 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritako irizpide gehituko zaio.

Zioak: Udal horiek haien erroldak osatzen dituztenei baino herritar gehiagori eskaintzen dizkiete zerbitzuak.

## 20. ZUZENKETA

### NAFARROA BAI

#### PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hemezortzigarrena, gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“18. artikulua. Udalerrien arteko Konpentsazio Funtsa eratzea.

Banaketa formula mantentzen bada, Nafarroako Gobernuak transferentzia arrunten %25 bideratuko du berezko baliabide eskasak dituzten udalerrri eta/edo kontzejuen finantzaketa osatzera, baldin eta behin banaketa formula aplikatu denean ezin badute beren gain hartu haien herritarrentza-



ko oinarrizko zerbitzuen dotazioa. Horrela, udalerrien arteko desoreka saihestea lortuko da, eta biztanle bakoitzeko gastu-ahalmen bat bermatuko da, kalitatezko oinarrizko zerbitzu batzuei aurre egin ahal izateko”.

Zioak: Proiektuak proposatzen duen formula mantentzen bada, uste dugu beharrezkoa dela funts bat eratzea udalerrien arteko pixkanakako konpentsaziorako.

## 21. ZUZENKETA

### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“2010 eta 2011 urteetarako salbuespen gisa, transferentzia arruntei dagokien zenbatekoa 3. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekiko handituko da: aurreko ekitaldiaren aurrean ehuneko bat gehituko da 2010erako, eta aurreko ekitaldiaren aurrean ehuneko bi, 2011rako.

Zioak: Toki erakundeen finantzaketa hobetu nahi dugu, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta funts

horretatik jasotzen dituzten transferentzien artean doikuntza lortze aldera.

## 22. ZUZENKETA

### **NAFARROA BAI**

#### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.

Hau da proposatzen den testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Gobernuak, 12 hileko epean gehienez ere, foru lege proiektu bat aurkeztuko du, zeinaren bidez toki entitateentzat gaur egun dagoen finantzaketa sistema aldatuko den eta haren ordeztu proposamen berri bat egiten den, Nafarroako zergetan parte hartzeko baldintzak, ehunekoak eta sistema ezarri. Proposamen horrek kontuan izanen du tokiko maparen berregituraketa eta eskumenen esparruaren definizio berria”.

Zioak: Gaur egungo finantzaketa eredua ez da tributu-partaidetza errearen arabera eta ez ditu aintzat hartzen benetako gastu-premiak.

## Foru Lege proiektua, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzkoa.

### AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezkeen agindu dit. Proiektu hori 2008ko irailaren 11ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### OSOKO ZUZENKETA

#### 1. ZUZENKETA

##### **NAFARROA BAI**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Horren bidez, proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion eskatzen da.

Zioak: Gaur egungo krisi ekonomikoa dela-eta Nafarroako Gobernua planteatzen ari den neurri ekonomikoez ezaugarri dute inprobisazioa, koherentzia eza eta proposatutako neurrien egokitasuna oinarritzeko adierazle objektiboen erabateko eza.

Lege proiektu honi dagokionez, Gobernuak, beste behin ere, ilunkeriaz eta gauzak nola edo hala taxutuz jokatu du. Proiektuari, arrandiaz, "Nafarroako ekonomia suspertzeko neurriei buruzkoa" deitu dio, baina ez dago egoera ekonomikoari buruz alde zuzeneko aurretik eginiko diagnostikorik, ezta neurriok izanen dituzten ondorioei buruzko adierazle azterketarik edo zehaztapenik ere; hala ere, neurrien garrantziari erreparatzen badiogu, badiardi, itxura guztien araber, eragin urria izanen dutela.

Lege proiektuak lau neurri zehatz ezartzen ditu: laneko kenkaria handitzea PFEZean, ohiko etxebizitza zaharberritzeagatik kenkariaren ehunekoa handitzea, amortizatzeko aukerari heltzeko muga handitzea eta, horrekin batera, amortizazioa azkartzeko, amortizazio koefizientea handitzea; horrez gain, abal-lerro bat, zenbait parametro betetzen dituzten inbertsioei % 60ra hel litezkeen laguntzak emateko.

Nafarroa Bai parlamentu-taldearen ustez, neurriok, oro har, ez daude txertatuta inongo jarduketa ekonomikoko planifikatu koherentetan; batetik, foru lege proiektu honetan jasota ez dauden neurri multzoak iragarri dira, hala nola mikroenpresei sozietateen zerga-tasa jaistea (% 24tik % 23ra); bestalde, hotsandiz iragarri denez, orain arte hutsik egon den "Moderna" plana abian jarriko da, zeinak helburu baitu, hain zuzen, berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako "eredu ekonomikoko berri bat" ezartzea, eta noiz iragarriko eta Nafarroako Gobernuak eta PSNk apirilean "2008-2012 Nafarroa Plana" hitzartu berri dutenean -4.000 milioi euro baino gehiago, eta zatirik handiena eraikuntzaren sektore "behartsuari" laguntzeko-.

Hitz batean, diagnostikoa falta da, izenburua eta edukia ez datoz bat, ez dago adierazlerik eta helbururik, neurrien zehaztapena eta gauzatzeko modua planifikatu gabe daude, Gobernuaren adierazpenak, sarri askotan, kontraesankorrak dira, eta atalka onesten ari den neurriak lokabeak eta koherentzia gabeak dira.

Hori guztia horrela, eta kontuan hartuz egoera zail eta labain honek behar dituen legegintza-ekimenek zorrotzak, koherenteak eta koordinatuak izan behar dutela, sektore publikoa eta ongizatearen gizartea indartzera bideratuak, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak osoko zuzenketa aurkeztu dio Nafarroako ekonomia suspertzeko neurriei buruzko Foru Lege proiektuari, eta eskatzen du, halaber, proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion.

### ARTIKULUEI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

#### 1. ZUZENKETA

##### **SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA**

##### **PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

I. kapitulari beste artikulua bat, 4. bis artikulua, gehitzeko zuzenketa.

"4. bis artikulua. Hipoteka-bermea duten maileguak berritzeko eskritura publikoek, maileguaren epea luzatzeari buruzkoak direnean, ez izatea Ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Testu Bategineko 22.1 artikuluan ezarritako kargarik.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Testu Bategineko 22.1 artikuluan ezarritakoa gorabehera –testu bategina apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen–, ez dute karga hori izanen eta paper arruntean emanen dira halako eskritura publikoak non ohiko etxebizitza eskuratzeko, eraikitze edo zaharberritzeko emaniko mailegu hipoteka-bermedunen epe-luzaketa jasotzen den; hain zuzen ere, 2008ko apirilaren 22tik zenbatzen hasi eta bi urteko epean emanikoak.

Zioak: Gaur egungo krisi ekonomikoak, familien erosahalmenari zenbait alderditatik eragiten baitio, eraman behar gaitu abian jartzera familien ekonomiarekin lotutako ekintza ekonomikoak erraztera bideratutako ekimen oro, irizpide dela betiere arrazionaltasun ekonomikoa eta ahalegin publikoaren ekitatea. Aldi honetako fenomeno nabarmenetako bat izan da dezente igo direla hipoteka-maileguen interes-tasak. Gauzak horrela, zenbait familiak, hipotekak hilean eragiten dien gastua mugatze aldera, erabakitzen dute maileguaren epea luzatzea.

Proposatutako tributu-neurria, zeina Nafarroako Foru Komunitatearen eskumen fiskalen barruan baitago, honakoa da: ohiko etxebizitza eskuratzeko, eraikitze edo zaharberritzeko emaniko mailegu hipoteka-bermedunen epe-luzaketa jasotzen duten notario-agiriei –hain zuzen ere, 2008ko apirilaren 22tik zenbatzen hasi eta bi urteko epean emanikoek– ez dezatela ordaindu ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, zeina, kasuotan, 0,15 eurokoa baita folio bakoitzeko; eskritura horiek paper arruntean emanen dira. Neurri hori Estatuak hartutako beste neurri batzuen osagarri da: bankuek hipoteka-maileguak luzatzeagatik kobratzen zuten komisioa kentzea, eta beste notario- eta erregistro-gastu batzuen murrizketa.

Kontuan izan behar da neurriaren onuradunak izanen direla ohiko etxebizitza bat eskuratzeko, eraikitze edo zaharberritzeko mailegu hipoteka-bermedun baten titularrak diren pertsona fisikoak. Ez zaie aplikatzen, ordea, kreditu-entitateak ez diren pertsonak edo entitateak emaniko kreditu eta hipoteka-maileguei. Gainera, hipoteka-maileguaren baldintzen berritze bat izan behar du; hain zuzen ere, itzultzeko epea aldatu egiten da, luzatu, hipoteka-maileguaren titularrak eta kreditu-entitateak hala hitzartuta. Beraz, ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguaren titularrak, mailegu horren epea luzatu nahi badu, lehenbizi mailegua eman zion kreditu-entitateara jo beharko du eta harekin hitzartu. Behin kreditu-entitatearekin luzapena hitzartuta, ez da notario-agiriaren gaineko kar-

garik izanen egintza juridiko dokumentatuak direla-eta, 0,15 euro baita folio bakoitzeko, eta paper arruntean emanen da maileguaren epea luzatzeko eskritura publikoa.

## 2. ZUZENKETA

### UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK ETA NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste kapitulu bat, III. kapitulua, eta horretan beste artikulua bat, 11. artikulua, gehitzeko zuzenketa.

"III. kapitulua. Finantza eragiketak

11. artikulua. 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 16. artikulua aldaketa.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik, 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 16. artikulua testu hau izanen du:

"16. artikulua. Zor publikoa jaulkitzeko edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Nafarroako Gobernuari honetarako baimena ematen zaio:

a) Maileguak nahiz kredituak ituntzeko edo zor publikoa jaulkitzeko baimena, 2008ko aurrekontu-ekitaldian zehar mugaegunera iristen direnak berritzeko.

b) Zorpetze-eragiketak egiteko baimena, finantza-aktiboak eskuratzeko helburuz, 34.000.000 euroko mugarekin, eta, behar izanez gero, bestelako zorpetze-eragiketak egiteko baimena. Izan ere, 2008rako aurreikusten den aurrekontu-defizita arintze aldera, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak bestelako zorpetze-eragiketa batzuk hitzar ditzakete, Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluaren jarraibideak errespetatuz, Hitzarmen Ekonomikoak xedatutakoaren eremuan eta aurrekontu-egonkortasunaren arauak ezartzen dituzten mugen barruan.

Aldi berean, zioen azalpeneko azken lerrokada aldatu behar da; honela geldituko litzateke:

Foru lege honek hamaika artikulua, xedapen gehigarri bat eta indarra hartzeari buruzko azken xedapen bat dauzka; denborari dagozkion ondorioak zehatz-mehatz aurreikusirik daude kasu bakoitzean.

Zioak: Ekonomia eta Ogasun Ministerioak autonomia erkidegoen 2008ko aurrekontu-orekari buruzko helburu-proposamena prestatu zuen Politika Fiskal eta Finantzarioaren Kontseiluak, 2007ko uztailaren 11ko bilkuran, proposamen horren aldeko txostena eman zuen. Helburu horrek 2008rako ezartzen zuen superabita zen BPGaren % 0,25ekoa, eta ez zuen sartzen hor inbertsioengatik defizita, zeina 5/2001 Lege Organikoko 3.1 artikuluan baitago jasota –lege organiko hori Aurrekontu egonkortasunari buruzko Lege Orokorren osagarria da–. Helburu hori jartzerakoan, oinarri hartutako baldintza izan zen BPGa, 2008an, % 3 baino gehiago igoko zela.

Egoera ekonomikoa hala Espainian nola Nafarroan izaten ari zen bilakaeraren lehenbiziko sintomak ikusita, Nafarroako Gobernuak zorpetze gehigarri baterako 2008rako programa-proposamen bat igorri zion, 2008ko otsailaren 8an, Ekonomia eta Ogasun Ministerioari, zeinaren zenbateko garbia 34.000.000 euro zen. Horren helburua zen finantza-aktiboetan izandako aldaketa bat finantzatzea; eragiketa horrek ez zion finantzaketaren gaitasunari/ahalmenari eragiten.

Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, 2008ko uztailaren 31n, 2008ko ekitaldirako zorpetze-programa sinatuta zuten, zeinak bide ematen baitu 34.000.000 euro garbiko zorpetze gehigarria egiteko. Zor publikoaren handitze horrek indarra har dezan, Nafarroako Parlamentuaren baimena behar da.

Bestalde, Ministroen Kontseiluak onetsita utzi zuen, 2008ko uztailaren 24an, Estatuaren 2009ko aurrekontuekin batera joanen den taula makroekonomiko berria. Ekonomia eta Ogasun Ministerioak, egoera berri honetarako, 2008ko BPGaren aurreikuspena %1,6ra jaitsi zuen.

Gauzak horrela, ekonomiaren bilakaera erreala 2008an % 2koa baino txikiagoa bada, 5/2001 Lege Organikoko 7.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak Gobernuari proposatu ahalko dio ez exijitzea artikuluko horrek hizpide duen berrerekatze plana, betiere 5/2001 Lege Organikoko 3.1 artikuluan jasotako defizitartearen barruan.

Aurreko urteetan, Nafarroako Foru Komunitateak ez du zorrik jaulki behar izan finantzaketarako, aurrekontuko baliabideak nahikoa izan baitira aurre egiteko gastuei eta sozietate publikoek egin dituzten hurrenez hurreneko kapital handitzei.

Gaur egungo egoerak pentsarazten du tributuen bidezko dirusarrerak asko jaitsiko direla 2008an, eta, horregatik, Gobernuak dagoeneko onetsitako beste neurri batzuez gain, komenigarria

da besteren finantzaketa erabiltzea finantza-aktiboak eskuratzeko eta, horrela, 2008ko ekitaldirako dirusarrerak indartzeko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Legeak hau ezartzen du: "Zorpetze eragiketarako lege baten bidez baimendu beharko dira. Horretarako, Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeak aurrekontu ekitaldi bakoitzeko zorpetzearen muga ezarriko du".

Aurreko guztien ondorioz proposatzen dugu aldatzea 2008ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2008 Foru Legearen 16. artikulua.

### 3. ZUZENKETA

#### IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen gehigarri berria. Nafarroako toki entitateen inbertsioak finantzatzeko foru plan berezia.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, Nafarroako toki entitateen inbertsioak finantzatzeko foru plan berezi bat finantzatzeko da 2009an, 2010ean eta 2011n.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, planari 150 milioi esleituko zaizkio, eta diru hori toki entitateen zenbait arlotako inbertsioak finantzatzera bideratuko da: gizarte-izaerako inbertsioak, hezkuntzakoak, kulturalak, osasun arlokoak edo kirolaren ingurukoak.

Ekitaldi bakoitzeko urtarrilean, deialdi publiko bat eginen zaie toki entitateei, aurkez ditzaten beren proiektuak eta horiei dagozkien finantzaketa-eskaerak, zeinak inbertsioaren % 100ekoak izaten ahalko baitira.

Nafarroako Gobernuak, foru lege hau onetsi eta hilabeteko epean, aurreko lerroak aipatzen duen deialdi publikoaren oinarriak onetsi eta argitaratuko ditu.

Oinarri horiek printzipiook izan beharko dituzte gidari: objektibotasuna, gardentasuna, inpartzialtasuna eta publikotasuna".

Zioak: Toki entitateek gero eta gehiago inbertitzen dute interes orokorreko proiektuetan eta horrek, atzeraldi ekonomikoko egoera honetan, jarduera ekonomikoaren pizgarri izan behar du. Nafarroako aurrekontu orokorrek hori finantzatzeko erabili behar dira.

**4. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

"Xedapen gehigarri berria. Gizarte enplegurako foru plana.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, gizarte enplegurako foru plan berezi bat finantzatu da 2009an, 2010ean eta 2011n.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, planari 50 milioi esleituko zaizkio, eta diru hori bideratuko da finantzatzeraz langabezian dauden pertsonen kontratazioa; arreta berezia eskainiko zaie iraupen luzeko langabetuei, familia-zamak dituztenei, gazteei edo 45 urtez gorakoei.

Gizarte enplegurako foru plan bereziaren kudeaketan eta exekuzioan parte hartuko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta Nafarroako toki entitateak.

Ekitaldi bakoitzeko urtarrilean, deialdi publiko bat eginen zaie toki entitateei, aurkez ditzaten beren proiektuak eta horiei dagozkien finantzaketa-eskaerak".

Zioak: Lanpostuak galtzen direnean, enplegurako gizarte planak tresna baliagarriak dira lan merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeei lana emateko.

**5. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

"Xedapen gehigarri berria. Alokairuko etxeen parke publiko bat sortzeko foru plana.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, alokairuko etxeen parke publiko bat sortzeko foru plan berezi bat finantzatu da 2009an, 2010ean eta 2011n.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, planari 50 milioi esleituko zaizkio, eta diru hori Vinsari helaraziko zaio, hark berak susta ditzan alokairu babestuko 4.500 etxebizitza (urtean, 1.500 etxebizitza)".

Zioak: Jarduera ekonomikoa berpizteko baliagarria da, baita ere, etxebizitza babestuen eskarari erantzutea alokairuko etxebizitzaren parke publiko baten bidez.

**6. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

"Xedapen gehigarri berria. Autonomia pertsonalaren sustapenerako eta mendekotasunaren laguntzarako ikerketen (I+G) eta praktika onen zentroa.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, autonomia pertsonalaren sustapenerako eta mendekotasunaren laguntzarako ikerketen (I+G) eta praktika onen zentroaren eraikuntza finantzatu da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, 6 milioi esleituko zaizkio helburu horri".

Zioak: Mendekotasunaren ikerketa-zentro bat sortzea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

**7. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

"Xedapen gehigarri berria. Zahar-etxe multifuntzional publikoak eraikitzeke foru programa.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, mendekotasun egoeran dauden zaharrei zerbitzua emateko erabilera anitzeko zahar-etxeen eraikuntza finantzatu da (zahar-etxe multifuntzional publikoak).

Nafarroako aurrekontu orokorretan, 60 milioi esleituko zaizkio helburu horri".

Zioak: Inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

**8. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Oinarrizko Osasun Laguntzan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezia.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, Oinarrizko Osasun Laguntzan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezi bat finantzatu da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, urtean 30 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

**9. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Ospitale-inbertsiorako foru plan berezia (2009-2011).

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, ospitale-inbertsiorako foru plan berezi bat finantzatu da, itxaron zerrendak bidali behar ez izateko osasun zerbitzu pribatuetara.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, urtean 50 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

**10. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. NUPeko Medikuntza Fakultatearen eraikuntza.

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, NUPeko Medikuntza Fakultatearen eraikuntza finantzatu da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, 30 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko, eta parlamentuaren erabaki bat betetzeko ere balio du.

**11. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Hezkuntza Publikoan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezia (2009-2011).

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, Hezkuntza Publikoan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezi bat finantzatu da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, urtean 30 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Gizarte-inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

**12. ZUZENKETA****IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

Xedapen gehigarri berria. Lanbide Heziketan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezia (2009-2011).

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, Lanbide Heziketan inbertitzeko eta hura hornitzeko foru plan berezi bat finantzatu da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, urtean 20 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Gizarte-inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

### 13. ZUZENKETA

**IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-  
NAFARROAKO EZKER BATUA**  
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK  
AURKEZTUA

Xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa.  
Hona testua:

“Xedapen gehigarri berria. Energia-aurrezpenerako eta -efizientziarako bai eta klima-aldaketaren

aurka borroka egiteko foru plan berezia (2009-2011).

Nafarroako aurrekontu orokorren kargura, Energia-aurrezpenerako eta -efizientziarako bai eta klima-aldaketaren aurka borroka egiteko foru plan bat finantzatuko da.

Nafarroako aurrekontu orokorretan, urtean 20 milioi esleituko zaizkio helburu horri”.

Zioak: Inbertsio hori egitea ere baliagarria da jarduera ekonomikoa berpizteko.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriei buruzkoa, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriei buruz, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren alorra eta "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza" eta "Hezkuntza etiko-zibikoa" ikasgaiak derrigorrezkoak dira, eta hala dago ezarrita ondorengo arauetan: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan; Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri zituen abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuan; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri zituen abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuan; Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuan; eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuan.

Beraz, ikasgai horiek ikasleek derrigorrez ikasi beharreko alorrak dira, eta horrenbestez, hezkuntza-administrazioak ere behartuta daude horiek eskaintzera, bestelako curriculum alternatiborik egiteko aukerarik gabe.

Ikasturtea hasi denetik, familia batzuek eskabi-deak aurkeztu dituzte, non, kontzientzia eragozpe-

nerako eskubidearen babesean, adierazten duten ikasgai horien edukiak ezagutzen dituztela eta horietako batzuek ez dutela errespetatzen haien kontzientzia-askatasuna, eta beren seme-alabak hazi nahi dituzten balioen aurka daudela. Ondorio gisa, eskabideen bitartez eskatzen dute beren seme-alabak ikasgai horiek ikasteko betebeharretik aske uztea eta ordeko ikasgai bat ikasteko aukera eman dakien.

Ondoren, Nafarroako Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak, 0123/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan eta 0132/2008 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, autoak eman ditu; horien arabera, lekuz kanpo dago kautelazko neurriak hartzea kontra egin zaien ikasgaiak derrigorrez ikasteko beharra etete aldera.

Bestalde, Nafarroako Arartekoak, maiatzaren 20an emaniko 58/2008 Ebazpenean, adierazten du "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza" ikasgaiaren xedeek eta edukiek –aurretik aipaturiko foru dekretuetan daude ezarritak– ez dutela urratzen gurasoen ideologia- eta erlijio-askatasuna, Espainiako Konstituzioan bermatua; eta oinarrizko hezkuntzako ikasle guztiek ikasi behar dutela ikasgai hori, eta hari dagozkion klausetara joan behar dutela.

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendariak proposatzen du ebazpen bat prestatzea, kontra egin duten familien eskaera atzera botako duena eta aurretik aipaturiko oinarrizko araudian derrigorrezko ikasgai gisa ezartzen diren alor eta ikasgai horien klaseetara joateko eskakizuna sendotuko duena.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea



/2008 Ebazpena, -aren -koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana. Honen bidez ezezkoa ematen zaio ikasle jakin batzuk "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren" alorra edo "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza" edo "Hezkuntza etiko-zibikoa" ikasgaiak ikasteko betebeharretik aske uzteko eskaerari.

Kontuan izanik "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren" alorra eta "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza" eta "Hezkuntza etiko-zibikoa" ikasgaiak derrigorrezkoak direla, eta hori ondoko arau hauetan dagoela jasota: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan; Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezarri zituzten abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretuan eta abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretuan; Lehen Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen martxoaren 19ko 24/2007 Foru Dekretuan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma ezartzen duen martxoaren 19ko 25/2007 Foru Dekretuan.

Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzuko zuzendariak txosten bat aurkeztu du, non nabarmentzen duen beharrezkoa dela ebazpen bat onestea, kontra egin duten familien eskaera atzera botako duena eta aurretik aipaturiko oinarritzko araudian derrigorrezko ikasgai gisa ezartzen

diren alor eta ikasgai horien klaseetara joateko eskakizuna sendotuko duena.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 22.1 d) artikulua emandako ahalmenen indarrez,

#### EBATZI DUT:

1. Ezezkoa ematea ikasle jakin batzuk Haur hezkuntzan "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntzaren" alorra edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan "Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza" eta "Hezkuntza etiko-zibikoa" ikasgaiak ikasteko betebeharretik aske uzteko eskaerari. Halaber, atzera botatzen da aipaturiko ikasgaiak irakasten diren garaian ikasle horiei hezkuntza alternatiboa eskaintzeko eskaera.

2. Ebazpen hau igortzea Idazkaritza Teknikora, Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzura, Hezkuntza Garapenerako Atalera, Curriculum Diseinuaren Bulegora eta interesatuei, bidezko ondorioetarako.

3. Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izanen da, Hezkuntza kontseilariari zuzenduta, erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasitako hilabeteko epean.

Iruñean, 2008ko .....aren .....(e)an.

Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusia: Teresa Aranaz Jiménez

## **Galdera, Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baimenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Victoria Arraiza Zorzano andreak galdera egin du Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baimenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Hezkuntza Departamentuak ondoko hezkuntza-mailak dituzten ikastetxe pribatuekin egiten du hitzarmena: Haur hezkuntzako bigarren zikloko ikasketak, Haur hezkuntza, Derrigorrezko bigarren hezkuntza, Batxilergoa eta Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketa.

Nafarroako ikastetxe pribatu bakar batek ere ez du itundu Hezkuntza Departamentuarekin Haur hezkuntzako zikloa.

Nafarroan badaude Hezkuntzari buruzko 1970eko Lege Orokorren babesean sortutako

eskolaurreko hezkuntzako ikastetxe batzuk, xede horretarako baimena lortu zutenak bere garaian. Luis Amigó ikastetxearen kasuan, 1986an emandako baimen bat dauka, hartzaindegi bat jartzekoa.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea indarrean sartu zenetik sortutako haur hezkuntzako ikastetxeek ez zuten baimenik lortu, arlo horretan araudirik ez zegoelako.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren bederatzigarren xedapen iragankorraren arabera, aipaturiko bi ikastetxe motek epe bat izanen dute Haur hezkuntzako ikastetxe berrien gutxienerako betebehartetara egokitzeko.

Nafarroaren kasuan, epe hori ezarri zen Haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Legearen bigarren xeda-

pen iragankorrean, eta honela dio: "Ikastetxe pribatuek, foru dekretu honek indarra hartzean, 3 urtetik beherako haurrak hartzen badituzte, irakaskuntza hori ezarri eta hiru urteko epea izanen dute eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta ikastetxerako baimena eskatzeko, foru dekretu honetako IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz".

Zentroei araudiak ezarritakoa betetzen laguntzeko xedez, Hezkuntza Departamentuak informazioa eta aholkularitza teknikoa ematen die hiru urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeak izanik –publikoak zein pribatuak–, 28/2007 Foru Dekretuak ezarritakoaren arabera baimena eskatu duten guztiei.

Iruñean, 2008ko ekainaren 6an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

## **Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkio zigorrek betetzeko plazen eskaintza sustatzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak eta Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusiak hitzarmenik sinatu duten edota sinatzeko asmorik duten, espetxearen ordezkio zigorrek betetzeko plazen eskaintza sustatzeko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 16ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du espetxearen ordezkio zigorrek betetzeko plazen eskaintzarekin zerikusia duten zenbait gairi buruz (PES-159 galdera). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Galdera horren zioen azalpenean, erkidegoaren onurarako lanak aipatzen dira Nafarroan eginko bide segurtasuneko arau-hauste larrienen ordezkio zigor gisa. Ildo horretatik, beharrezkoa da ohartaraztea lehenik eta behin, aipaturiko zigor hori, askatasuna kentzearen ordezkioa, ez dela aplikatzen soilik bide segurtasunarekin lotutako delituen kasuan, baizik eta bi urtetik beherako zigorra duten delitu asko barne hartzen dituela; eta horientzako zigorra edo kondena erkidegoaren onurarako lanak egitea izan daiteke.

Aldi berean, komeni da argitzea Estatuari dagokion eskumena dela zigor arloko neurriak betetzea, erregimen itxian zein irekian, eta alor horretan ez dago Nafarroako Foru Komunitateari eginko transferentziarik. Horrela, erregimen irekian bete beharreko zigorren jarraipena eta kontrola –zigor horien artean daude erkidegoaren onurarako lanak– Espetxeetako Gizarte Zerbitzuari dago. Unitate hori Espetxe Erakundeei atxikia da, eta haien menpe dago.

Hori guztia argituta, eta galderan planteaturiko gaiari erantzuteko, ondoko puntuetan laburbildu da zein den Nafarroaren egoera erkidegoaren onura-

rako lanei dagokienez, eta Nafarroako Gobernuak aurrera eraman ditzakeen jarduerak:

1- 2007ko abenduan, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuko zuzendaria Nafarroako Gobernuko Justizia Zuzendaritza Nagusiari zuzendu zitzaion, azaltzeko zertan zen askatasuna kentzearen ordezkotako zigor arloko neurrien aplikazioa, eta eskatzeko Nafarroako Gobernuak alor horretan lagun zezan.

Justizia Zuzendaritza Nagusiak, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuarekin bilera batzuk izan ostean, erabaki zuen solaskide arituko zela zerbitzu horren eta Foru Komunitateko beste erakunde batzuen artean: Nafarroako Gobernua, Udala eta Kontzejuen Federazioa, Iruñerriko Mankomunitatea, enpresa publikoak eta abar.

Horrenbestez, bi lan-talde eratzea proposatu zen, zigor arloko ordezkotako neurriak ikertu eta aztertze aldera; taldeetako bat bideratua egonen zen neurri horiek buru-gaixotasuna, adimeneko ezgaitasuna eta drogamenpekotasuna duten pertsonengan aplikatzera, eta bestea, zehatzagoa, erkidegoaren onurarako lanen zigorra aplikatzera.

Horretarako, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuei eta aurretik aipaturiko erakundeek eskatu zitzaion ordezkotako izenda zitzaten lan-talde horietarako.

2- Xedetzat erkidegoaren onurarako lanen aplikazioa aztertzea izanen zuen taldea 2008ko otsailaren 28an eratu zen, Auzitegi Nagusian eginiko bileran, eta ondoko erakundeak izan ziren bertan:

- Justizia Auzitegi Nagusia
- Nafarroako Fiskaltza Nagusia
- Justizia Zuzendaritza Nagusia
- Espetxeetako Gizarte Zerbitzua
- Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioa
- Iruñerriko Mankomunitatea
- Iruñeko Udala
- Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua
- Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua
- Kultura eta Turismo Departamentua
- Hezkuntza Departamentua
- Gizarte Ongizate Departamentua
- Nafarroako Larrialdietako Agentzia

– Immigrazioarako Bulegoa

Lehen bilera hartan, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuko zuzendariak azaldu zuen zein zen erkidegoaren onurarako lanen egoera Nafarroan, eta 2007ko datuak eman zituen.

Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak emaniko datuetatik ondorioztatu zen Nafarroaren egoera ez dela bereziki larria; izan ere Nafarroan zabalik dauden 123 espedienteetatik, 56 pertsonak programa amaitua zuten (%45), 27 pertsona programa betetzen ari ziren (%22), 18 programa hastear zeuden (%14,6) eta 22 pertsona (%17,8) behin-behineko beste egoera batzuetan zeuden –programa etenda, osasun arloko kausak edo ebazteke zeuden gorabeherak–.

Alabaina, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak ohartarazten zuen beharrezkoa zela plaza gehiago izatea zigor hori bete ahal izateko; izan ere plaza horien eskaria haz zitekeen, nagusiki Zigor Kodea bide segurtasunaren alorrean aldatzearen ondorioz.

Egoera eta plazen eskaintzak erakunde eskaintzaileengan izan ditzakeen ondorioak azaldu ostean, lehen bilera hartan guztien lankidetzara eta ahalegina eskatu zen plaza berriak aztertu eta sortze aldera. Horretarako, erakunde eskaintzaileek, banaka, txosten bat igorriko zioten Espetxeetako Gizarte Zerbitzuari, kasuan kasuko alorrean eskuragarri zeuden plazei buruzkoa.

Hori horrela, eta orain arte, Espetxeetako Gizarte Zerbitzua solaskidea da lan-taldean dagoen erakunde bakoitzarekin, eta hari dagokio inplikaturiko erakundeek bilera berrietarako deialdia egitea, egokituz jotzen badu.

3- Orain arte adierazitakotik ondorioztatu daitekeenez, Nafarroako Gobernuaren zeregina izan da Justizia Zuzendaritza Nagusiaren bidez solaskidetzara, bitarteko- edo koordinatzaile-lanak egitea, Espetxeetako Gizarte Zerbitzuaren –horrek gauzatzen ditu eskumenak– eta Foru Komunitatean diharduten gainerako erakundeen artean.

Espetxe Erakundeetako Zuzendaritza Nagusien eta Nafarroako Gobernuaren artean balizko hitzarmen bat sinatzeari dagokionez –espetxearen ordezkotako neurriak betetzeko plazen eskaintza sustatze aldera–, Nafarroako Gobernua zabalik dago Estatuarekin edonolako lankidetzara izatera alor horretan. Alabaina, zuhurtasunagatik, zentzuzkoa dirudi itzarroteak xede horretarako eratu zen lan-taldeak ateratako ondorioak jakin arte eta lan horiek direla-eta Espetxeetako Gizarte Zerbitzuak hautematen dituen beharrak ezagutu arte; betiere,

erakunde hori da gai honetan ekimena izan behar-ko duena.

4- Justizia Zuzendaritza Nagusian, eta beraz departamentuan, gaur egun dauden eta etorkizun batean eskain litezkeen plazei dagokienez, ez dira datuak ezagutzen; izan ere, gorago adierazi denez, Espetxeetako Gizarte Zerbitzua solaskide bakarra da erakundeetako bakoitzarekin. Horrenbestez, Justizia Zuzendaritza Nagusia zain dago

erakunde horrek bilera berri baterako deialdia egin dezan, edo lortutako emaitzen edo aurkitutako zailtasunen berri eman diezaioten.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:  
Javier Caballero Martínez

## **Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharrizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharrizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du adineko pertsonak dituzten beharrizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Antzeko galdera bati (aurtengo apirilaren 1eko sarrera erregistroa zuena) duela gutxi emaniko erantzunean adierazi zen moduan, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak uste du beharrizanen gaineko azterlanak Plangintza Orokorrerako tresnak direla, lurralde desorekak

saihestu eta jarduteko lehentasunak zehaztekoak. Plangintza Orokor hori Nafarroako Gobernuari dagokio, eta departamentu honen bidez egiten du.

Ildo horretatik, departamentua, uneotan, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa prestatzen ari da. Plan orokor horren xedea da aztertzea zein diren Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuetan esku hartzen duten sektore guztien beharrizanak. Sektore horien artean, nola ez, adineko pertsonak daude. Plan horren ildo estrategikoetako bat da lehenestea zein diren esku-hartze sektoreak (menpekotasuna, adineko pertsonak, minusbaliotasuna, buru-gaixotasuna, gizarte-bazterketa, adingabeak eta genero-indarkeriaren biktimak) eta pertsona horiei arreta ematen dieten zerbitzu egoiak. Horrela, agerian geratuko dira adineko pertsonen beharrizanak, horien bizilekua dena delakoa.

Amaitzeko, udalek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dituzte. Horiek herritarrengandik hurbilenean dauden zerbitzuak direnez, jakin badakite zein diren adineko pertsonak dituzten beharrizanak beren toki entitate zehatzetan.

Iruñean, 2008ko ekainaren 11n

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## Galdera, Nafarroako txirotasun-inezeei eta oinarrizko errentari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako txirotasun-inezeei eta oinarrizko errentari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 23ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du Nafarroako pobrezia-tasa eta oinarrizko errentari buruz. Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, esan beharra dago galde-ran pobrezia erlatiboari buruz emaniko datua, %22,1, profesionalen talde batek orain dela gutxi argitaratu duen azterlan batetik atera dela, eta departamentu hau ez datorrela bat datu horrekin. Ildo horretatik, adieraz dezakegu Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak emaniko 2006ko bizi baldintzei buruzko inkestak ez dituela inolaz ere emaitza horiek ematen; aitzitik, Nafarroari esleitzen dion pobrezia-arriskuaren indizea nabarmen txikiagoa da (%18). Horren arabera, gure Foru Komunitatea adierazle horren baliorik txikieneko postuen artean legoke.

Gaur egun, Alter taldea –Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Laneko Sailekoa–, azterlan diagnostiko bat egiten ari da Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaien Departamentuak eskatuta, Nafarroan diren gizarte-bazterketaren kasuei buruz. Azterlan horrek oinarria izan beharko du Nafarroako Gobernuak Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko 2. Plana egin dezan.

Edonola ere, garrantzitsua da argitzea pobrezia-erlatiboaren tasak desberdintasun sozialaren adierazleak direla, eta horri egiturazko prozesu “makroen” arabera begiratu behar zaiola (egitura ekonomiko eta soziala, zerga eta gizarte segurantzako politikak, gastu publikoaren orientazioa...). Alabaina, horrelako adierazle batek ez ditu neurtzen dirusarrera faltaren ondorioz sor daitezkeen

benetako gizarte-bazterketako egoerak; baizik eta, adierazi den moduan, errenten arteko desberdintasuna neurtzen du, kontuan izanik Nafarroako errenta estatuko errentaren balio zentrala baino askoz ere handiagoa dela.

Hortaz, gizarte politika ororen lehentasunezko helburua da herritar guztiei eragiten dien pobrezia-tasa murriztea. Horretara zuzendua dago, hain zuzen, Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko 2. Plana. Xede horretarako, gutxieneko dirusarrerak bermatzeko neurriak erabiltzen dira, eta horien artean garrantzitsua oinarrizko errenta da. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak prestazio bermatutzat jotzen du oinarrizko errenta, eta beraz, eskubide subjektibotzat ere hartzen du baldintzak betetzen dituen herritarrarentzat. Hala ageri da legea betetzeko onetsi zen gizarte zerbitzu orokorren zorroan.

Arau horiek Nafarroako oinarrizko errenta, kua-litatiboki, Espainiako gainerako erkidegoen aurretik kokatzen dute. Zenbatekoari dagokionez, Nafarroako oinarrizko errentak ere lehentasunezko tokia dauka, izan ere: lanbide arteko gutxieneko soldatarekin erlazionatuta dago, beste autonomia erkidego batzuetan IPREMarekin erlazionatzen den bitartean (zenbateko txikiagokoa); zehazki, lanbide arteko gutxieneko soldataren %80 eta %130 arteko tarteetan dago finkatua batetik seira bitarteko familia-unitateentzat. Berehala onetsiko den gizarte zerbitzuen zorroan ezarritakoari jarraikiz eta Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legean jasotako aldaketarekin bat, ehuneko hori lanbide arteko gutxieneko soldataren %85-%145era igoko da; 2009ko urtarrilaren 1ean, tarte %90-%145ekoa izanen da; eta 2010eko urtarrilaren 1ean lanbide arteko gutxieneko soldataren %100-%150ekoa izanen da.

Igoera portzental horiekin eta lanbide arteko gutxieneko soldatak Estatuan izanen duen hedadurarekin –aurreikusi da 2011rako kopurua hileko 800 eurokoa izatea– iragartzen dugu pobrezia larriaren tasak Nafarroan jaitsi egingen direla, aintzat hartuta adierazle horri asko eragiten diola gizarte gertatzen den edozein aldaketak: immigrazioa handitzea, krisi ekonomikoa, langabezia areagotzea eta abar.

Amaitzeko, garrantzitsua da adieraztea galde-ran aipaturiko datuak, ustiatu dituzten “adituen” arabera, erlatiboak direla: lehenik eta behin, oina-

rritzat duten lagina ez delako behar bezain adierazgarria (400 inkesta egin dira, baina baliozko metodo soziologikoen arabera 1.000 inkesta egin beharko lirateke adierazgarria izateko). Bigarrenik, ez da kontuan hartzen immigrazioak Nafarroan duen eragina handiagoa dela antzeko errenta duten beste autonomia erkidego batzuekin alderatuta (Euskal Autonomia Erkidegoa, esaterako).

Azkenik, etxeen errentaren edo pertsonen errentaren arabera neurtzeak emaitzaren aldaketa bat eragiten du, bat ez datorrena, aipaturiko metodo soziologikoei jarraituz, emaitza probableekin.

Iruñean, 2008ko ekainaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gauz.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zergatik T bideetako teleordainketa eskusiboa ez dabilen gauz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko maiatzaren 30eko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko ekainaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du T bideetako teleordainketak gauz duen funtzionamenduari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

2007ko maiatzaren 25ean, Nafarroako Gobernuak eta Autopistas de Navarra S.A. (Audenasa) enpresak hitzarmen bat sinatu zuten AP-15 autobidearen funtzionaltasuna hobetzeko jarduerak egiteko, Nafarroako autobidearen lehen fasea eraiki, zaindu eta ustiatzeko emakidaren kontratua alda-

tzeko eta aldaketa horrekin eta bere finantzaketarekin lotutako beste konpromiso batzuk hartzeko. Hitzarmen horri jarraikiz, enpresa horrek teleordainketa sistema ezarri zuen. Horretarako, autobidearen enborrean lau bide jarri zituen norabide bakoitzean, teleordainketa egiteko prestatuak, eta Martzillako adarrean norabide bakoitzeko beste bi. Bide horietatik erdikoak teleordainketa sistema eskusiboa dauka egunean zehar, hori baita gutxi-erabiltzen den bidea. Gauz, trafikoa eskasa denez, erdiko bideak mistoak dira, ordainlekuan kobratzaile bakarra egon dadin bi norabideetarako. Horrek bide eskusiboa kentzea badakar ere, ez du teleordainketa zerbitzuaren kalitatea murrizten, izan ere beste hiru bide automatiko daude, gauz beti libre izaten direnak.

Dena den, teleordainketa sistemak izandako bilakaera positiboa ikusirik, Audenasak laster ugarituko ditu sistema hori erabiltzen duten bideak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bateginaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 9an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

## HARPIDETZA ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete ..... 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko ..... 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko ..... 1,40 »	